

HIRUGARREN MAILA 92-93

DASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Sorginak oldartuak dira -
2. Nola erakusten dute beren kezua?
3. Xobadinaren arrazuna eta gazten estekunak.

II SORGINAK 5

KATTALINEK.—Ama! Ixtantean Aita Sainduaren aldi da bertzela!... (Orok hirri.)

MARIAK.—(Kexu kexua:) Zer duzue bada gaur, gutaz hola irri egiteko? Nehork ez lezake erran, Xobadinaren haurrak holakoak izan ditezke, beren auzo hoberenentzat...

KATTALINEK.—Baduk hoberik! (Orok hirri.)

MARIAK.—Zer gaizki ekartzen dute nehoi gure solasek?

GUZIEK.—(Salbu Xobadinak:) Gaixo bildotxak!

MARIAK.—Ez ahal gira arima galdu batzu, Elixar Harri-Peñakoa bezala?...

LUIXAK.—Elixaren aldi, orai! Lehen eta... ez azken!

XANETAK.—Obra on guzietan sartuak ez girea?

JOANNAK.—Bai eta ongi sartuak: (Ahapetik bere laguneri:) ezin atheratuak, zorigaitzez! (Lagunek hirri.)

XANETAK.—Hots Maria! Xuti gaiten, eta goazen, etxera! Ez dugu hemen deus gehiago egitekorik...

KATTALINEK.—Gaur, akhitu ahal zaizte biziki, egin duzuenaren egiten!... (Orok hirri.) Kafe tottaño bat, Maria, Xaneta?... Kafe on bat, xikorerik batre gabekoa?...

MARIAK.—Aski hola, andreak! Gure berri badakikezue laster...

OROK.—Badakigu, badakigu, segurki!

MARIAK.—Ez aski, eta ez ongi, oraino! Gau on, Xobadina! Hori bezen hobendun egiten zaitugu, zure etxean manatzen ez duzunaz geroz hobeki... Jende onez ez da hola nihun trufatzen egundaino... (Badoazi, beren makilak bezen tente.)

LUIXAK.—Berriz ez ikusi arte!

IV

AINTZINEKO BERAK, MARIA ETA XANETA
ESKAS BAKARRIK

XOBADINAK.—Lan ederrik egin duzue, haurrak!

LUIXAK.—Lan ederrik? Ez gira urrikitan sartzekoak!

KATTALINEK.—Aski ere ez diotegu ez erran, ez egin!

XOBADINAK.—Bainan, haurrak! Eta karitatea? Zer egiten duzue bada Jainko legeaz?...

XOBADINAK.—Karitateak eta Jainko legeak galdatzen dute ihizi gaixtoari aztaparren erroitik atheratzea, ahal delarik.

XOBADINAK.—Joanna!

JOANNAK.—Bai, hola da, hoi, Xobadina maitea: gaizkiarizango-hegalak behar zaizko moztu, eta ondotik oraino! Hean, hean, lanean ari girelarik, zer gogoratuko zaukun ororen artean, gure bi liztafineri beren sistaren atheratzeko...

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. ez lezake erran 32 izan ditezke
33 xuti gaiten 34 badakikezue 35 egiten zaitugu

31. UKAN - Conditionnel Futur. (in 911)

<u>O.S.</u>	<u>O.P.</u>
Nik ukan nezake (je l'aurais)	ukan nitzagke (je leserais)
Hik -" - lezake	-" - litzagke
Zuk -" - zinezake	-" - zinitzagke
Harek -" - lezake	-" - litzagke
Guk -" - ginezake	-" - ginitzagke
Zuek -" - zinezakete	-" - zinitzagkete
Heiek -" - lezaket	-" - litzagkete

32. IZAN - Potentiel Présent

Ni izan naiteke	je pourrais être
Hi -" - haiteke	tu pourrais être
Zu -" - zaitzake	
Hura -" - daiteke	
Guk -" - gaitzake	
Zuek -" - zaitzaket	
Heiek -" - daitezke (ditezke)	

33 IZAN - Imperatif =

<u>Singulier</u>	
2 ^{em} pers.	izan hazi = sois
-" -	-" - zaitz = sois
3 ^{em} pers.	-" - bedi = qu'il soit
<u>Pluriel</u>	
1 ^{er} pers.	izan gaitzen (gaiten) = soyons
2 ^{em} pers.	-" - zaitzete = soyez
3 ^{em} pers.	-" - bedite = qu'ils soient
	ou bituz